

Zer Berri Golen eta Udalaren gaitzezpena ETaren erasoan
Kultura Kantu afariarekin hasiko dira Euskal Jaixak

pitpilean

SORALUZEKO
HAMABOSTEKARI.
112. alea, 2005ko
maiatzaren 27an




Ramiro Larrañaga


*gure historiaren
grabatzailea*

Javier Elorzaren
idatziarekin

Ramiro Larrañaga
'IN MEMORIAM'

8.
orrialdea





Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.

Sagar Erreka, 19 45 PK

Telefona: 34 943 75 21 00

Faxa: 34 943 75 17 12

20590 SORALUZE



EIBAR

ERMUA



E-maila: unibhi@iesunibhi.com /
www.iesunibhi.com

Otaola Hiribidea, 29 - 20600 EIBAR
Tel. 943 20 84 44 / Faxa. 943 20 31

Ongarai Auzoa - 48260 ERMUA
Tel. 943 17 62 57 / Faxa. 943 17 64

Aurrematrikula: ekainaren 1etik 8ra

EIBAR

ERMU

GOI MAILAKO HEZIKETA

- ◆ Administrazio eta Finantzak (EGUNEZ eta GAUEZ)
- ◆ Nazioarteko Merkataritza

- ◆ Telekomunikabide eta Informatika-Sistemak
- ◆ Informatika Aplikazioen Garapena

ERDI MAILAKO HEZIKETA

- ◆ Administrazio Kudeaketa

- ◆ Informatika Sistemen Ustiapena



ARIANNE UNAMUNO LOIDI

Eta nere etxia, noizko?

Oin bi aste, Elene Alberdik gure herrixan etxebizitzaren inguruan dagan arazo larrixan gainan berba egin zokun, gazte eta ez hain gazte garanon arduria agertu nahixan. Horretxan harira, plazentziatar baten kasua kontauko detsuet.

Urte askuan, herri erdixan dagan etxe kaxkar baten bizi izan zan plazentziatar ezagun hau, berakin zerikusit haundirik ez zeuken bizilagunez inguraturta. Ez zan palaziua haren etxia; herriko beste etxe batzuen aldian umila zan oso eta ez zekan luxu askorik, baina bere apaltasunian eroso bizi zan. Argittasunik bare, itxi-itxitta, kurtina ilun eta pisutsuz tapauta, kanpokaldia ikusi eta sentidu ezinga, lagunak gonbidatzen zittuan bere etxera eta harek ekartzen zotsen argixa eta bizittasuna. Hantxe ibiltzen zan, kantuan, bertsoan, antzeztan, dantzatan... batzuetan alai eta bestetan aspertu antzian. Batian gaztetxuekin, hurrengo nagusixekin. Baina geldi ez zan oso sarri egoten.

Halako baten, berandu baino lehen pasatu bihar zana pasatu zan: haren etxeko teilatua goititik behera etorri zan pixkaka, eta gure laguna etxerik bare geratu zan. Han ezin zeikiala bizi eta, alde egin bihar izan zeban. Hasieran ez zeban larregi arduratzeko moduko kontua emoten, eta danok trankil hartu genduan gure lagunak desgrazia. Bera be ez zan asko estutu; *“egon hari lasai, laste ipiniko jostek-eta etxe barrixa, ponpoxo-ponpoxa gainera. Ikusikok!”* esanaz ibiltzen zan.

Baina urtiak dexente jua badia be, eta bittarte horretan umiak nagusitu eta nagusixak umetu, gure lagunak oindio ez dauka bere etxerik eta beti lekutxo bat egingo ete dotsen eskian ibiltzen da. Batetik bestera jarraitzen dau harek: tabernetan eta gaztetxian, edari eta ke artian gehixenetan; elizan eta kapi-lan, Jesukristok ondo zaintzen dabela; frontoietan, humel, hotz eta bakarti; udaletxian, Erregian begirada galdua ezin galduta. Kalia giro epela daganian gustora egoten da, danon moduan, baina hotzak eta eurixak aterperik bare harrapatzen dabenian, ez jako hari be barregura haundirik etortzen ondora.

Hainbeste hara eta hona, hainbeste denpora etxez etxe estalpe eske, kantzauta daguala ikusten dot aspaldixan. Aspertuta dago. Eta ez dau ulertzen. Ezin dau ulertu berak zegaittik ezin daben euki bere etxia. *“Bestiak baino gutxiago ete naiz ba ni?”* pentzatzan dau.

Ba, ez da bere izena ezkutuan erabili nahi dabena, hau plazentziatar hau. Batzuek hobeto eta beste batzuek gutxiago, baina danok dakazue haren barri: Kultura dauka izena. *“Eta nere etxia, noizko?”* galdetzen dau.

Telegrapak

Kaixo irakurle **stop** haize barrixak joko ete dabean itxaropena loratu ez loratu dago **stop** baina udabarrizan haize zaharrak jo dabe berriz **stop** batzuetan Hegoiak eta hurrengo Iparrak jotzen dau **stop** baita Mendebalak be **stop** batzuetan zakar, askotan siku **stop** oin astebete herrixan zakar jo zeban iparretik ETak **stop** triskantzata edarra eragin zeban GOLen atarixan **stop** eta askoren barrenetan **stop** aspalditik jakin arren hortik ez datorrela ezer onik **stop** bildurra, amorrua eta sufri-mendua ereinda ez datorrela lorarik **stop** hegoiak be jo dau, Espainiako Estatuak, eta harro gainera **stop** baztarrak erre arte berotu nahixan, Madrilgo zelda hotzak euskaldunetz betetzen jarraitzen dabe **stop** eta loretxua hor dago **stop** sasi artian **stop** zein aldetara loratu ez dakixala **stop** Ba, jakin bihar genduke haize barririk ez dala sortuko **stop** errogatibak egitten dira **stop** baina haizotza eta atxurra hartu eta sasixak kentzia da bakiaren-dako esperantza bakarria **stop** berezko loriak badira, baina sasixa errezago etortzen da **stop** badago lorezainik gure herrixan? **stop** banakak **stop** Ramiro zan bat **stop** baina haura be jua da **stop** danok harek beste lan egin izan bagendu, gure herrixaren alde **stop** aspaldi loratuta geunden! **stop** Jaixak antolatzen behintzat makalak ez garala agerixan dao **stop** Euskal Jaixak, Ezoziko Jaixak, Galipoteko Jaixak **stop** Soraluzetarrak gara gu! **stop** Athletic eta Realan arteko partiduan oinguan ez da marruzarik egongo **stop** Lorak botako doguz danok **stop** Eta epailari baita **stop** Josebari be emon sorta bat, suertia ekarri deixon **stop** Ahal bada, arantza barekuak izan daittezela danak!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonoa 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan,
Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka
Salaberria eta Egoitz Unamuno.

Publizitatea:

Ugaitz Catalan
Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean Egoitz Unamuno 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Azala: Silvio Vaz Caro
Diseinua eta Maketazioa: Silvio Vaz Caro
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: 55-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariak esanen eta iritziaren erantzukizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Erreportaia

“Geuk musika elkarte bat sortu genuan, badakizu zeintzun artean? Ba, sozialista, lauzpabost erreketeta gudarien artean. Harrapa ezak hori! Eta ondo etortzeaz aparte, gerraren gainean ere berba egiten genuen, gai tabu izan barik”

Zorion agurrak



Estibaliz Azkona

Maiatzaren 27an 28 urte

Zorionak potxoli ! ia noiz animatzen garan eh! muxuk!
Familixakuen partetik.



Jondar Plata

Ekainaren 1ean.

Laztanak familixako danon partez!
Haundixena amama Ferminana



Ibai Kortabarria

Maiatzak 31an 10 urte

Zorionak etxeko txikitxenari!
Formal portau ta litxarrerixa gutxi jan zeure egunian, ee?

Aita, Ama eta arrebian partez.



Yeray eta Galder

Maiatzak 29an.

Zorionak gure umetxueri, 3 urte ya, eh?

Asko maitte zaittuegu, etxeuk eta tia Emi eta Ninak

Gutunak

Berriz ez!

2001-eko Irailaren 8-a zen, dispertsioak Asier eta Iñaki albotik eraman zizkigun eguna.

Beste behin beraien omenez landatutako zuhaitzak eraso bat jaso du. Faxisten ebakiaz sendatu ostean kimuak ateratzen zegoen haritza txikitu dute, aurrez errotik ateratzen saiatu dira, baina Asier eta Iñakik beraien sustraiak gure bihotzetan errotu zituzten bezala, zuhaitz honek ere bere sustraiak, askatasun sustraiak ongi errotuak zituen.

Beti pentsatu izan dut, horrela, defenda ezin daitekeen zuhaitz bat erasotzea doilorkeria dela. Eraso honek doilorkeri gehiago egon daitekeela ikustera eramaten nau. Eraildako pertsona biren omenez landatutako zuhaitza erasotzen dutenek hitz bat dute: zikinak!! Demokrazia une oro ahotan duten faxistak dira. Zikinak!

Ez da lehen eraso; aurrez Txortaren omenezko monolitoa puskatu zuten, Luisena lapurtu...

Mina egitea bazen zuen helburua, lortu duzue. Hala ere, ez pentsa gure ametsa, Asier, Iñaki, Luis, Txorta eta beste mila abertzaleren ametsak zapuztuko dituzuenik; garaipena gurea da, eta herri honek merezi duen askatasuna lortuko dugu.

Asier, Iñaki, maite zaituztegu

Gorka Salaberria

jaiotakoak

GORKA IRISARRI AROSA

hildakoak

ANA MARIA EGIAZU BENITO

RAMIRO LARRAÑAGA

FERNANDEZ DE ARENZANA

ANASTASIA SAN JOSE FERNANDEZ

Aisialdiko begirale lan poltsa

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika eta Gaz-T Aisialdi Taldeak aisialdiko begiraleak eta zuzendariak behar ditu aisialdiko lan poltsa osatzeko. Bidali curriculumak: Atxutxiamaika eta Gaz-T Aisialdi Taldeak

K/UBITARTE 4, BEHEA 20870 ELGOIBAR
atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com

Telefonoa: 943 74 16 26 (Aiora)



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

ekintzak

Defentsa pertsonaleko ikastaroa Bergaran

Bergarako Udalak antolatuta. Egunak: maiatzaren 27an eta 28an. Ordutegia: 27an, 16:00etatik 20:00etara, 28an, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Bergarako Kirol Zerbitzua. Telefonoa: 943 779167

Musika Udalekuak

Donostiako Musika Hamabostaldiak antolatuta. 6tik 12 urtera bitartean, 4 eta 5 urteko haurrentzako tailerra. . .2005eko abuztuaren 1etik 12ra. Astelehenetik ostiralera, 09:30etatik 13:30etara. 103,00 euro. Telefonoa: 943 003170

ikastaroak

Gaztekutxaren 2005eko auzolandegiak

Gaztekutxa 15etik 27 urtera bitarteko adinekoak. Gaztekutxa txartelaren titular izan behar da. Arkeologia eta Ingurumenaren berreskuratzea. Aranzadi Zientzia Elkarteko biologoek eta arkeologoek zuzendurikoak. Lekuak: Aiako Harria, Aranzadi-Praktikak, Artikutza, Larraul, Segura, Uitz. Uztailan eta abuztuan. Plazak bete arteko lekua. Plazak ekainaren 13tik aurrera esleituko dira. Telefonoa: 943 001240.



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren, 10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Telefonoa 75 24 09

ARRANO
tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

ELISKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Zer irizten dotsazu?

Datorren ekainaren 12an egingo dira Ezoziko Jaiak. Aurten egun bakarrekoak izango dira jaiok. Txurrukan eta Irure auzoetan galdu ziren eta San Martzialen ere nahikoa jeitsita daude. San Andres da hiru eguneko jaiari eusten dien salbuespena.

Baduzu auzoetako jaietara joateko ohiturarik? Zergatik beherakada?



Jon Aranda

29 urte Tornerua

Normalian juaten naiz, San Andresera eta Ezoziko jaixetara. Gehixen gustatzen jata-na kirolak eta dagan girua da. Nere ustez gero eta gazte gutxiago juaten dira, ze gaztiak tabernazaliak dira eta ez auzoko jaizaliak.



Maribi Alonso

39 urte Garbitzailia

Batzuetan juaten naiz. Ezozira gutxiao baina San Andresera beti juaten naiz. Neri horrek jaixok asko gustatzen jataz; musikia, dantzak, dana... Nere ustez jai danak egin dabe behera.



Agustin Moro

50 urte Elektrizistia

Bai, juaten naiz. Erromerixak dira onenak nere ustez. Behera egin dabe, gaztiak ez diralako juaten. Gabetan zela juan ez dabe izaten askotan.



Juanita Soraluze

59 urte Umezaina

Batzuetan bai, baina normalian ez naiz juaten. Kirolak eta dantzak dira auzoetako jaietako gauzarik onena. Gazte jentiak ez dau nahi jua-terik eta zaharrak bajatu egin bihar dabe...



Lidia Lopez

52 urte Tornujotzailia

Bai juaten gara, baina lehen umiak txikixak ziranian gehixao. Kirolak, dantzak eta txakolina da gehixen gustatzen jatana. Nere ustez jende nagusia gero eta erosuaua da eta kosta egitten jaku urteztzia.



Angel Garro

41 urte Metalgintzako langilia

Kriston giro ona egoten dalako juaten naiz. Auzoetako jai-xetatik gehixen gustatzen jatana erromerixak dira. Honek be behera egin dabe, baina edozein jairen moduan.


LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g
138 Postakutxa

tf: 943752150
Faxa: 943752118

SORALUZE



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE



LEHERGAILUA GOL ENPRESAN

Joan den maiatzaren 15ean, goizaldeko 4ak aldera, lehergailu batek eztanda egin zuen Sagar Errekako Industrieguneko GOL enpresan.

Lehergailuak bulego sarreran eta biltegian kalteak eragin zituen, bai eta inguruko etxe partikularretako zenbait leihotan ere. Ordu berean Bergarako, Elgoibarko eta Beasaingo beste 3 enpresatan ere jarri zituzten lehergailuak. Atentatu honek, herrizaingo sailaren arabera, ETaren iraultza zergarekin dauka zerikusia.

Udalaren eta GOL-eko langileen gaitzespen mezuak.

Udal Batzarrak gogor gaitzetsi du mezu baten bitartez GOL enpresari egindako eraso eta elkartasuna adierazi die enpresari, bertoko langileei eta Sagar-Erreka auzoko bizilagunei. Honekin batera, ETari berehala desagertzeko exigitu dio. Enpresako langileek, beren aldetik, beste gaitzespen mezu bat etara dute, enpresari eta langileei egindako erasoak kondenatuz eta Oregi familiari elkartasuna adieraziz.

Udalekuak Soraluzean

Uztailaren 4tik 15era bitartean, Haur Hezkuntzako azken bi mailakoendako eta Lehen Hezkuntzako 1,2,3 eta 4. mailakoendako. Udalekuak antolatuta ditu Udaletxeko Gazteria sailak. Udalekuetako ordutegia goizeko 10etatik 12:30etara izango da eta matrikula Udaletxeko Gazteria sailean egin beharko da maiatzak 30etik ekainak 3ra bitartean Matrikularen prezioa 16 eurokoa da.

“Apartheid” egoeraren salaketa

Joan den asteazkenean, maiatzak 25, elkarretaratze isila egin zen Udaletxe parean Autodeterminaziorako Bilgunea eta 200 herri plataformatik gora legez kanpo utzi zituztenetik bi urte bete diren honetan. Alderdien legeaz baliatuz, ezker abertzaleko herri plataforma gutxi batzuk baino ezin izan ziren 2003ko udal eta foru hauteskundeetara aurkeztu. Soraluzeko Askatasun Haizeak izan zen Espainiako Auzitegi Gorenak legezko jo zueneko herri plataforma bat.

Jai Batzordea hasi da jaiak prestatzen

Udaleko kultura eta gazteria sailak deituta, Maiatzaren 25ean bildu zen bigarren goz Jai Batzordea. Udaleko eta Galtzagorri Jai Batzordeko ordezkariak jaietako egitaraua adosten nahian dabil-tza. Orain arte, Udalak kontratatuta dauzkan musika taldeen berri eman du (Mariachiak, Elektrotunoak eta orkestra Bambú besteak beste) eta Galtzagorrikoek euren aurrekontuaren berri eman diote Mirari Olertza Gazteria eta Kultura saileko zinegotziari. Aurrerantzeko bileretan ere elkarlanean jarraituko dute.

Lombideren margo erakusketa Eibarren

Ostiral honetan hasita Maria Dolores Lonbide margolari Soraluzetarraren erakusketa izango da ikusgai Eibarko Topalekuan. Erakusketa 19etatik 21etara izango da irekita astebarruan eta zapatu-jai egunetan, berriz, 12etatik 14etara eta 19etatik 21etara.



HNOS. BENITO ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



EDURTZA kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko menua eta pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



EKAINAREN 12AN EZOZIKO JAIKAK

Aurten ekainaren 12an egin-go dira jaiak Ezozin. Azken urteotan, auzoko jaiak izan duten beherakadak (jende eta antolatzaile aldetik) bultzatu ditu jaiak egun bakarrera murriztera. *“Abuztutik Ekainera pasau genduzen hoherako izango zalakuan eta ikusi danez ez da bape zuzena izan. Urtero urtero jaiak antolatzeko izugarrizko lan pila egin daben auzoko jentia be pixkanaka ilusiñua galtzen jun da. Baina etorkizunian gogor jarraitzeko asmoz gare”.* Soraluzetar denak gonbidatuta dauela adierazi zigun Munetako Aritz Alustizak.

EGITARAUA

9:00etan: S.K.B.rekin mendi irteera Gila Zubitik.

12:00etan: Mendoz eta Bizkai trikitilariak. Ondoren S.K.B.-ko mendiko finalistei ongi etorria egiten diegun bitartean salda eta txorizoa banatuko da.

13:00etan: MEZA.
Jarraian HERRI KIROLAK.
(Aizkora motozerraren aurka, idi probak, motozerrarekin altzariak egiten...)

15:30etan: Armendi Jatetxean bazkaria. Bazkaldu nahi duenak aurrez txartelak eskuratu beharko ditu S.K.B.-ko lokalean edo Armendi Jatetxean.

17:30etan: ARNO bere zezentxo eta zalditxoekin plazan. Ondoren erromeria Mendoz eta Bizkai trikitilariekin.

18:00etan:
III. BOLO TXAPELKETA.

Azterketa arkeologikoak Erregetxean

Ostegunean hasi ziren Aranzadi Zientzia Elkartekoak Erregetxeko lurrazpiak aztertzen. Udalak bertan eraiki asmo dituen aparkalekuak egiten hasi aurretik derrigorrezkoa da lurrazpitan zulaketak egin eta aztarna arkeologikorik ez dagoela frogatzea. Ostegunean egin zuten lehengo zuloan buztina aurkitu zuten Aranzadikoek eta horrek lur naturala dela aditzera ematen du. Datozen egunetan beste bi zulo egingo dituzte.



Barra kargadore automatikoak eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teletel.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

JAVIER ALONSO ZELAIETA

434 ZENB.KOL

HORTZ KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

RAMIRO LARRAÑAGA "IN MEMORIAM"

(Erredakzioan itzulia)

Belaunaldi desberdinekoak izanagatik, Ramiro Larrañagarekin izan ditudan harremanak kultura alorrekoak izan dira funtsean, eta zehatzago, gure herriko historiari dagozkionak. Ere mu hontan egin ahal izango dut beraz, bere literatur lan oparoaren zirriborro biografiko bat.


Gazterik hasi zen Ramiro jaioterriko iraganean barneratzen, bere ikerketak armagintzara bideratuz bereziki. 50. Hamarkada hasieran argitaratu zituen bertoko armagintzarekin lotutako lehenengo prentsa artikulua, jaietako programak, etabar. Harrez gero, bere historiarekiko dedikazioa haundiagotzen joan zen, denboraren buruan beste genero batzuk bere gain hartzera iritsi arte; hala nola eleberria, hizkuntzalaritza, etnografia, edo antropologia... Egile honen alderdirik esanguratsuenak azpimarratzekotan, bi hauek aipatuko nituzke: alde bate-tik, idazteko zeukan berezko erreztasuna, eta bestetik, haurtzar-roan familia giroan armagintzaren artea barneratu izana. Motibo hauek, disziplina hontan espeziali-

zatzera bideratu zuten, nazioarte-an ospea lortzeraino.

Bertoko gaiari eskeini zien lanetatik, hiribilduaz egin den monografia historiko bakarra nabarmentzen da, zeinaren edizioak nahigabe bat baino gehiago ekarri zizkion Ramirori. Egia da lehenago beste mini monografia bat argitaratu zuela, baina haren edukia bigarren lan honetan asimilatu eta ikusgarri haundiagotu zen. Liburu hontan, benetan interesgarritzat jotzen dut XIX eta XX. mendeko berri eta dokumento grafiko desberdinen bilketa lana. Esate baterako: ibaiak herriko puntu desberdinetan hartzen zituen izendapenak idatziz jasotzea, Ramiroren jakituria eta zorroztasuna erakusten dute. Halaber, lekuko armagintza hiztegiaren bilketa, aparteko altxorra da gure idiolektorendako.

Ezinezkoa litzateke eta ez da gainera aipamen honen arrazoia, Ramiroren idatzizko lan itzelari buruzko analisi bat egitea; helburua ez da gure herrian lanik gehien argitaratu eta

Idazlerik emankorrena izan denari merezitako aitortpena egitea baino.



Ramirok grabaturako egindako puntzoiak



Ramiro Larrañaga (Soraluze, 1924-2005)

Ramiro Larrañaga Fernandez de Arenzana (Soraluze 1924- Donostia 2005). Armagin familia batean jaioa. Maisu grabatzailea 1945etik eta idazlea. Bokaziozko artista autodidakta gisa, zizela erabiltzeko manera berriak garatu eta deskubritu zituen, bai grabatuetan, bai urrezko ezku-zigiluetan, bai errotuluetan. Idazle modura, berriz, Euskal Herriko armagintzaren inguruko bere ikerketa lanagatik nabarmendu da. Izan ere, artxibo eta museotan jardunez, lanbide honen hastapenak, bilakaera eta bestelako xehetasunak bildu eta argitaratu ditu. Halaxe, bere ikerlanak mundu mailan antzinako armetan adituak direnekin tratu izatera eramandu.



Bere Bizitzaz

Bere bizitzako zenbait pasarte laburtzen saiatu gara datozen lerroetan. Horretarako, denbora asko ez dela Beñat Doxanbaratzek Ramirori egin zion elkarrizketa batez baliatu gara.

AITAREN HERIOTZA ETA GERRA ZIBILA

Ramiroren aita, eskopetagilea, 1935. urtean hil zen. Dena aldapan gora jarri zitzairen etxekoei. Moja zen izeba batek lagundu zien Ramirok bigarren hezkuntza Iruñeko eskola baten debalde egin zezan. Gerra hasierak Iruñean harrapatu zuen, eta nazionalen aldean erori zen. “Bestela, gudarien ondoan egin nezakeen, lasai asko” dio elkarrizketan Ramirok.

IDEOLOGIAZ FORUZALEA

Ez zen sekula alderdi politiko batean afiliatu eta “horregatik etorri zaizkit hainbeste kolpe, alde guztietatik. Ni beti foruzalea izan naiz. Beti esan dut euskal gatazka foruak kendu zizkiguten garaitik datorrela, orain 150 urte. Badakizu, Bergarako besarkadafartsa hura Espartero eta Marotoren artean. Zuk esan zer demonio egiten zuten mantxego eta murtziar batek euskaldunon geroa erabakitzen”.

GERRATIK BUELTAN KAÑOI FABRIKARA

Soraluzeko kañoi fabrika hasi zen lehenengo. Gero, Eibarko eskopeta lantegi batera joateko baimena eskatu zuen eskopeten grabatua ikaste aldera. Handik gutxira soldaduska Zaragozan egiteko deitu eta bertan bitxigile batzuek lana egin zuen.

SOLDADUSKATIK UDALETXERA

Soldaduskatik itzuli zenean bere kasa hasi zen grabatzaile modura, eta dendatxo bat jarri zuen emaztearekin Kalebarrenean. Orduan “herriari laguntzea” tokatu zitzaion. Artolak, orduko alkateak esan omen

zion: “Hi Ramiro! Etorri egin bihar dok ayuntamentuan sekretarixua bihar juagu-eta”. Berak onartu eta 15 urte eman zituen bertan. Gero tallerrean murgildu zen atzera.

MUSIKAZALETASUNA

Saxofoia, organilloa, flauta, txistua eta bandurria jotzen zituen Ramirok. Allegro elkarte musikaren adibidea jartzen du gerra osteko giroa eta elkarbizitza islatu asmoz. “Geuk musika elkarte bat sortu genuan, badakizu zeintzun artean? Ba, sozialista, lauzpabost erreketeta gudarien artean. Harrapa ezak hori! Eta ondo etortzeaz aparte, gerraren gainean ere berba egiten genuen, gai tabu izan barik”.

EUSKALDUNON MARKETINGAZ

Jose Artetxeren esaera bat ekartzen du gogora: “Euskaldunak ez ziren sekula arduratu bere historiari. Eta orain, jakina, aztarna batzuk baino ezin ditzake aurki. Lana txinatarren modura egin ondoren, bakarrik jan eta edanean eman izan dugu denbora. Hori medio, ni beste batzuekin batera, saiatu izan naiz gabezia historiko horiek berreskuratzen”.

BIBLIOGRAFIA oso zabala dauka Ramirok. Real Sociedad Bascongada de Amigos del Pais-eko bazkide ere bazen eta asko izan ziren elkarteko boletinean argitaratu zituen artilkuluak. Baita ere “Eibar” eta “Pil-pilean” aldizkarian (Etxazpi gaitzizenez sinatzen zuen gurea). Argitaratutako liburuen artean hona hemen izen buru batzuk: “SORALUZE, PLACENCIA DE LAS ARMAS, MONOGRAFÍA HISTÓRICA”, “EL DAMASQUINADO DE EIBAR”, “SINTESIS HISTÓRICA DE LA ARMERÍA VASCA”, “LOS ZULOAGA”, “DINASTÍA DE ARTISTAS VASCOS”, LOS ARMEROS VASCOS Y AMÉRICA”, “VIUDO Y SOLO”, etabar, etabar.



Soraluzeko Euskal Jaixak Ekainaren 2tik 18ra



Ekainaren 5ean 150 dantzari baino gehiago batuko dira herrian beste behin.

Ekainaren 2tik 18ra bitartean egingo dira aurtien Euskal Jailetako ekitaldiak. Euskal Jai Batzordeak antolatuta, urteroko jai ekitaldiez gainera, euskarazko berbeta informala- ren inguruko gogoeta eta ekainaren 18an egingo den "Mingain bero" lehiaketa egingo dira aurtien. Ondorengo da ekainaren 11ra bitarteko antolatu duten egitaraua:

- Ekainaren 3an, barixakua

VI. Kantu afaria
21:30etan frontoian
(Sarrerak salgai Gila, Arrano eta Pil-
pileanen)

- Ekainaren 5ean, domeka

XXXV. Haurren Euskal Jaixa

- Ekainaren 9an, eguena

UEUren ikastaroen aurkezpena
18:30etan Gaztetxean

- Ekainaren 11n, zapatua

UEU ezagutzera irteera
11:00etan Gilatik
(Izena emateko Pil-pileanera deitu)
Euskararen mural pintaketa
16:00etan Kañoi fabrika aurrean

- Ekainaren 14an, martitzena

"Berbeta Berua" liburuaren eta Min-
gain Bero lehiaketaren aurkezpenak.
19:30etan Gaztetxean

- Ekainaren 16an, eguena

"Eske guk holan eitten dou berba,
bale?: gaur egungo gazte hizkeraz"
Kike Amonarrizen eskutik

- Ekainaren 18an, zapatua

"Mingainbero" lehiaketa
12:00etan Gaztetxetik

Dantzariak etxeetan hartzeko

Euskal Jai Batzordeak eta Urrats
Dantza Taldeak dei egiten dizue So-
rauzetar denei, Ekainaren 5ean he-
rrira etorriko diren dantzari gazteak
etxeetan har ditzazuen. Horretarako,
jo Iratxo Goxodendara edo deitu
943751304ra edo 669269409-ra
(Nerea).

Mila esker!

Ipuin lehiaketako sariak Ekainaren 9an

XX. ipuin lehiaketa antolatu du aurtien Soraluzeko Udaleko Kultura, Euskara eta Gazteria batzordeak. Lehiaketa Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko eta Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloko neska-mutikoei egon da zuzendua eta sari bana-keta ekainaren 9an izango da kiroldegiko erakusketa gelan arratsaldeko 6etan. Partehar-tzaile guztiek oparitxo bana ja-soko dute.

Absbatzaren kontzertua Lizarran

Lizarrako Abesbatzak gonbidatu-ta, Ezoziko Ama Abesbatzak kontzertu berri bat eskeiniko du Li-zarran ekainaren 4an, datorren zapatuan., Kontzertua arratsalde-ko 8etan izango da Eliza nagu-sian eta egitarauan azken hilabe-teetan prestatzen jardun duten kantu berriak eskeiniko dituzte, ohiko klasikoekin batera. Hurren-go emanaldia Santiago Santa Ana jaietako kontzertua izango da.

Margo Lehiaketa domekan

Igande honetan, maiatzak 29, Ka-leko XII. Margo lehiaketa ospatu-ko da Soraluzeko kaleetan. Izen-ematea Udaletxeko Zinegotzi-Ge-lan egingo da igandean bertan goizeko 9etatik 10etara bitartean eta partehartzaileek, beren lanak burutzeko beharreakoak dituzten material eta tresna guztiak ekarri beharko dituzte. Lehiaketaren gaia Sorlauze izango da.

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

Juan Mari

Arraindegia

**Eguneroko
arraina
eta konjelatuak**

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



Joseba García

Auto Pilotoa

« KONTZENTRAUTA JUATEN NAIZ ETA EZ DOT BESTE EZER EZ BESTE IÑOR IKUSTEN, BIDIA BAKARRIKAN »

Familiatik datorkio Joseba Garcia soraluzetarrari autoekiko zaletasuna. Orain dela urte bete mendi igoeretan parte hartzen hasi zen bera ere, Eibarko Julio Cuadra pilotuarekin batera. Denboraldiko bere lehenengo proba- Gorlako igoera- ezin izan zuen amaitu Josebak, aberia bat izan baitzuen. Familiaren lantokian (*Garages Garcia*) izan gara Gizona eta Makiñaren (*R5 GT Turbo bat*) arteko harremana hobeto ezagutzeko.

- Noiz piztu zitzaizun auto lasterketan parte hartzeko gogoak?

Aita eta tio be rallye-xetan ibiltzen ziran gaztetan. Giro hori bizi izan dot. 10 urtekin kar bat erabiltzen neban eta 13kin autua hartu neban lehenengo aldiz. Eskolarik ez nekanian garajera etortzen nitzan laguntzera eta hor ibiltzen nitzan aparkalekuan, aurrera eta atzera. Urtiekin berotzen juan naiz. Iez aukeria ikusi genduan hasteko eta gurekin lan egiten daberen piloto ohi batek lagunduta txapelketan izena emon genduan.

- Zer da auto barruan zoazenean sentitzen duzuna?

Mendi igoeran bidia neretako bakarrik da.

Kontzentrauta juaten naiz eta ez dot beste ezer ez beste inor ikusten, bidia bakarrikan. Oso sensazio gustagarria da abixadia eta erruberen derrapiak sentitzia.

- Garestia al da kirol hau? Guretako bai. Lehenengo

federatu egin bihar zara eta eskuderixia topau; gero, kontrol psikoteknikuak pasatzen badittuzu, korritzeko moduan zare, baina korritzeko segurtasun neurrixak jarri bihar dira, bai autuandako eta bai pilotuandako; hori garestixa da. Karrera baten izena emotiarren be **200 euro** ordaindu bihar dira. Txapelketan lortzen dozun postua zuzenian proportzionala da autuan gastatzen dozun diruakin.

- Zenbat igoeratan hartu duzu parte?

Nik 5 igoeratan: Arrate, Urraki, Las Muñecas, Jaizkibel eta Gorlakuan, eta Juliok (*beste pilotuak*) beste **5etan**.

Txandaka erabiltzen dogu autua. Iez gure kategorixan (*3R klasea*) Euskadiko hirugarren geratu nitzan baiña karerra guztietan ez nebanez parte hartu ez ninduen puntuau.

Pilotuarendako:

Eskularruak, kareta, nufogozko monoa, kaskoa.

Autuarendako:

Antibuelko barrak, su itzalgailua eta homologatutako arnesak.



Joseba Garcia mekanikaria da ogibidez. Auto piloto izateaz aparte, Soraluze Futbol taldeko jokalarari ere bada.



GIPUZKOAKO 3 TXIRLO TXAPELKETA

Zapatu honetan, maiatzak 28, Gipuzkoako 3 txirloko jaurdunaldi berri bat jokatu da Txurrukako bolatokian arratsaldeko 4etan. Guztira, 20 taldek hartu dute parte aurtengo txapelketan eta batz bestea 70 bolarik hartzen dute parte jardunaldi bakoitzean. Taldekako sailkapenean, Txurrukakoak 7. lekuan daude eta San Andreskoak, berriz, 9.ean.

Banakako norgehiagokan, hau da behin behineko sailkapena:

- 1- Felix Gomez, 26 txirlo
- 2- Imanol Osoro, 19
- 3- Jesus Mari Diez 19
- 13- Bittor Núñez 15
- 20- Jose Antonio Núñez 11
- 27- Iñaki Ariznabarreta, 9
- 29- Jose Luis Larreategi 9
- 33- Juan Cruz Arizaga 8
- 37- Jon Aranda, 7
- 40- Jose Gabriel Núñez 6

Moto kontzentrazioa egin zen igandean

Motoclub Plaentxik antolatuta, moto kontzentrazioa egin zen Soraluze igande honetan, maiatzak 29, herriko zein kanpoko motozaleen gozamenerako. Kontzentrazioan parte hartu nahi zutenek goizeko 9:30etan eman zuten izena Plaza Berrian, 5 euroren truke. Ondoren, 11etarako ruta turistikoa prestatu zuten inguruetako paisaiak ezagutzeko eta 14etan lagunarteko babajana gozatzeko zuten. Festa opari banaketekin amaitu zen.

Athletic eta Errealzaleen arteko derbia 4an

Ekainak 4an ospatuko da beste urte batez Errealzale eta Athleticzale betereanoen arteko derbia. Norghegiagoka arratsaldeko 4:30etan hasiko da Ezoziko Futbol zelaian eta epaile lanetan Jose Mari Gómez ale hontako kale kantaleko protagonistak jardungo du.



EMAITZAK

ESKU PILOTA

Aitor Atxotegi

Urretxuko txapelketan,
Atxotegi 22- Goiko 12
Mendinueta 22- Atxotegi 7
Deba Arroko Txapelketan,
Txurruka- Atxotegi 22
Muguruza- Larrañaga 6 (Bergarrak)
Portu Atxotegi 22
Barrón- Sarasua 1 (Eibartarrak)

Iñaki Jauregi

Min hartuta egon da azken bi asteetan

Haritz Laskurainek eskuko minez jarraitzen du

FUTBITO TXAPELKETA

Jaietako futbito txapelketako lehenengo partiduak ostiralean jokatu ziren. Aurten 12 talde lehiatuko dira txapelketako kopa preziatua irabaztearren. Hauek dira taldeen gizenak:

**Hola dok,
Babajana,
Ballesta Team,
Gare izenbarik,
Fronton Team,
Guri Guri,
Los Cracs,
Gaztetxe,
Art'fices,
Gamusinos,
Supertorpedos,
Mendots.**

AGENDA

Mendi irteera maiatzaren 29an Larru-nera (900m)

Arantzazu (Bera-Senpere)
Egun osoz



kutxa
gizarte ekintza

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Joxe Mari Gomez

“87 kopa eta txapel dauzkat etxian”

Ekainaren 4an jokatuko da Athletic eta Realzaleen arteko partidua Ezoziko futbol zelaian. Askotan moduan, Joxe Mari izango da epaile lanak egingo dituen. Honen aurretik hamaika partidu epaitu ditu Joxe Mari eta kross mordo bat irabazi ere bai gaztetan. Bejondeixola!

Zenbat urtian ibili zinan epaile moduan?

Zazpi urte egin nittuan Gipuzkuako Federaziñoko epaile laguntzaile moduan. Kadetien, infantilen eta nesken partiduetan batez be. Danera 274 partidu 7 urtian.

Zela hasi zinan?

Ermuko irakasle batek deittu zostan ia eskolako txapelketako partiduetan epaile egingo neban. Korrika egitetik ezagutzen ninduan eta horregaitik deittu zostan. Han hasi nintzan eta horren ostian federaziñotik deittu zosten, epailiak bihar zittuela esanaz.

Eta ñun ikasi zenduan?

Neure kontura ikasi bihar izan neban. Araudixa irakurri eta ikasi neban epaile izaten.

Ze herritan ibili zinan?

Gipuzkuan herri askotan; Lezo, Zumarraga, Deba, Mutriku, Hondarroa, Lasarte, Bergara, Antzuola...

Korrika be egitten ziñuan gaztetan?

Bai. 87 kopa eta txapel dauzkat etxian: 40 medalla, 9 txapel eta 17 kopa. “Club Atletico de Ermua”rekin korrika egitten neban. Atxa Memoriala lau aldiz irabazi neban. Hogei urtekin hasi eta hogeitamabi-



Joxe Mari Gomez

kin laga neban. Mokorrian lesio bat izan neban.

Zein izan zan korridu zenduan lasterketarik luziena?

Donostiako maratoian (20 kilometro) 15. egin neban, 1:09 orduko denporiak.

Bertso Begiz

Krossetako garaipenak eta futboleko demak danak pertsona batenak. Zenbakixetan ikusten dira Joxe Mariren lorpenak ez dira asko hain gitxigaitik hainbeste egin dabenak

Etxebarri

(Doinua: Urso xuria errazu)

DEBAKO TALDEAK IDATZI ZIONA

Gauden moduan egonda, apenas argirik ematen duten futboleko izarrez inguratuta, gozagarri da 7 urtean 274 partidu epaitu dituen eta Gipuzkoako eskolako historiako epaile izan arren, hain humila den norbaitekiko topo egitea. Jose Mari maitagarria da eta berarekin berba egiten duzunean konturatzen zara, azkenean, Sirimiriak busti egiten duela.

Kanpoko giroak gutxi eragiten dion pertsona da, jokuko arauak zehatz ezartzen ahalegintzen dena, Gipuzkoako eskolako epailea, poliki-poliki bustitzen duen Sirimiriaren modukoa da.

“Danera 274 partidu arbitrau nittuan 7 urtian”

ELIZpE

h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea
9 4 3 7 5 2 5 6 7
20590 Soraluze

FER. S.A.
Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Argazki zaharra



Iturria: Joxe Mari Gomez

Lehenengo Herri Krossa

1978xan, abenduaren 17xan jokatu zan Soraluzeko Lehenengo Herri Krosseko argazkixa. Orduko "Juventud Gonzaga"ren aurrian, saribana-ketako hizlari lanetan agertzen da Aranzabal (Kirol Bazkunako lehendakaria zena orduan). Eskuetan garaikurrak hartuta, kros-sian sarituak izan ziran hiru garailiak: Juana Mari Cid (emakumietan), Jose Mari Gomez (senior mailan) eta Tomas Rodrigez (jubenetan).

Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?

Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

Deitu

943 75 13 04 ra

Aurreko alean...



Erantzuna...:
iturri gaineko eskulturatxoa.

...eta irabazlea:

Ezoz! Unamuno

TXOKO KAFETEGIA



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarran 22 behean, telf: 943751789

JABIER ALBERDI



ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32



Ugaraxo

euskararen olinpiadak





AUPA GORRIAK !!!
ANIMO BERDEAK !!!
AURRERA URDINAK !!!
GORA HORIAK !!!

EUSKARAREN OLINPIADAK GURE ESKOLAN

EUSKARAREN OLINPIADAK

GURE ESKOLAN, EUSKARAREN ALDE MAIATZAREN 16AN HASITA OLINPIADAK OSPATZEN ARI GARA. OLINPIADA HAUEK LAU TALDEREN ARTEAN JOKATZEN DITUGU ETA TALDE BAKOITZA KOLORE BATEZ BEREIZTEN DA: GORRIA, BERDEA, URDINA ETA HORIA.

OLINPIADA HAUEK IRABAZTEKO TALDE BAKOITZAK AHALIK ETA PUNTU GEHIEN LORTU BEHAR DITU, HORRETARAKO TALDEKO PARTAIDE GUZTIAK ASKO SAIATU BEHARRA DAUKAGU. MAILA GUZTIETAKO IKASLEEK HARTZEN DUGU PARTE TALDE (KOLORE) BAKOITZEAN, TXIKIENETATIK HASITA, HIRU URTEKOETATIK ETA SEIGARREN MAILARA ARTE, MAILA GUZTIETAKOAK GAUDE TALDE BAKOITZEAN.

EGIN DITUGUN JOLASAK : MUSUZAPIKA, TXINGAK, KANPOSANTUKA, SOKASALTOKA, TXOLORRAK ETA KATEJOLASA (HAU EGUNERO ETA AZKEN EKINTZA

BEZALA EGITEN DUGU). ORAIN ARTE JOKATUTAKO JOLASETAN BERDEEK IRABAZI DUTE TXINGETAN, TXOKORRETAN URDINEK, MUSUZAPIKA BERDEEK , KANPOSATUKA, NOLA EZ, HORIEK ETA SOKASALTOKA, BERRIZ ERE, URDINEK.

ZEIN KOLORE IZANGO DA IRABAZLEA KATE JOLASEAN, SOKATIRAN ETA ERRELEBOTAN???

AUPA GORRIAK !!!
ANIMO BERDEAK !!!
AURRERA URDINAK !!!
GORA HORIAK !!!

ETA GUZTIEN GAINETIK
BAT, BI, HIRU, BI, EUSKARAK IRABAZI
3.A MAILA

TXIKI-INKESTA

Zela doiaz aurtengo olinpiadak?
Ze jolas egitten dozue?

IKER URIARTE 8 URTE 3 A

Euririk ez badau egitten, jolasorduetan egitten doguz jolasak. 4 talde gare: berdiak, gorrixak, urdiñak eta horixak. Ni gorrixen taldekua naiz. Maila guztietakuk nahastuta gare taldietan, txikixak bebai.

**CASANDRA SALGUERO 9 URTE 3 A**

Gu horixak gara eta oin arte azkenengo lekuan gare. Taldian 10 gara. Pañuelitoka gustatzen jata gehixen. Sokatira ez jata gustatzen. Fuerte tira egin bihar danian min hartzen dot eskuetan. Gaur errelebotara jolastuko dogu.

**SILVIA LOSCOS 9 URTE 3 A**

Euskararen aldeko olinpiadak dira. Neri gehixen gustatzen jata pañuelitoka jolastia. Sokatiran egittia ez jata gustatzen eskuetan min hartzen dot-eta. Talde berdia da neria. Ikastetxeko maila guztietakuk nahastuta gare

**JOSE ROMERO 9 URTE 3 A**

Ni gorrixa naiz. Zapi gorri bat eruatzen dogu eta hola badakigu bakoitza ze talde-takua dan. Astelehenian eta asteartian ez genduan jolastu txikixak eskursiñuan jua ziralako. Neri kanposantu jolasa gustatzen jata gehixen.

**JOSU GIL 8 URTE 3 A**

Ni be gorrixetakua naiz, Jose eta Ikerren moduan. Kanposantu jolasa gustatzen jata: baloiakin jolen botsue jua bihar zara beste puntara. Musuzapi jolasa ez jata larregi gustatzen. Antxitxika egin bihar da eta kantzau egitten naiz.

**NEREA IÑARRA 8 URTE 3 A**

Euskararen olinpiadak urtero ospatzen doguz. Jolas asko egitten doguz: kanposantu jolasa, sokatira, sokasaltuan, musuzapi jolasa, kate jolasa eta gaur errelebotara. Ni berdia naiz eta uste dot bigarren goiazela.

**« Abestia »****BEHIN BETIKO**

Behin betiko,
behin betiko,
simple bezain tinko,
ez dugu etsiko!!
Behin betiko, behin betiko,
simple bezain tinko,
Euskaraz eta kitto!!
Etxean eta kalean,
berdin-berdin jolasean,

Imanol Urbieta

eskolan, lanean,
tristuran eta pozean.
Dakitenek erabiliz,
ez dakitenek ikasiz,
Herri bat osaturik
Euskaraz nahi dugu bizi.

Hasi etxetik eta kalera,
hasi kaletik eta etxera,
martxan jarri da lege berria:
Euskaraz Euskal Herrian!!





KIROL TOPAKETAK


MAIATZAK 20AN 4.MAILAKO IKASLEAK ESKORIATZARA JOAN GINEN. BERTAKO KIROL-DEGIAN, ESKORIATZA, ARETXABAETA, ARRASATE, ANTZUOLA, ELGETA, ARAMAIO, BERGARA, OÑATI ETA SORALUZECO ADIN BEREKO HAURRAK ELKARTU GINEN "BETIKO JOLASAK ETA HERRI KIROLAK" LANTZEKO. GOIZEAN HERRI KIROLETAN PARTE HARTU GENUEN (SOKATIRA, TXINGAK, HARRIJASOTZEA,...). ARRATSALDEAN, BERRIZ, BETIKO JOLASETAN PARTE HARTU GENUEN (TXAPAK, BOLOAK, KROMOAK, DOKEA, INTXAUR JOKOA,...).

<< OSO GUSTORA IBILI GINEN ETA HERRI DESBERDINETAKO JENDEA ELKARTU GINE-NEZ, LAGUN BERRI ASKO EGIN GENITUEN >>

INTXAUR JOKOA

ILARAN ETA JOKALARIENGANDIK HIRU METROTARA ZORTZI INTXAUR ETA HAUEN ERDIAN HURRA BAT IPINTZEN DIRA. INTXAURRAK JOKALARIEK EMONDAKOAK DIRA.

1. BOTALDIETARAKO JOKALARI BAKOITZAK SEI INTXAUR JOKATUKO DITU.
2. BOTALDIAN ILARAKO INTXAUR BAT JOZ GERO, INTXAUR HORI JOKALARIAK IRABAZTEN DU.
3. BOTALDIAN, BERRIZ, HURRA JOTZEN BADU, ILARAKO INTXAUR GUZTIAK IRABAZTEN DITU.
4. BOTALDIAN EZ BADU INTXAURRIK JOTZEN, BOTATAKOA ERE GALTZEN DU.
5. IRABAZLEA INTXAUR GEHIEN JASOTZEN DUEN JOKALARIA DA.





ELGOIBAR BH INSTITUTUA

2005/06 IKASTURTEA

Arregitorre, 2
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbh.net
www.elgoibarbh.net



ERDI MAILAKO ZIKLOAK

Ibilgailuen elektromekanika
Karrozeria, txapa eta pintura
Merkataritza
Erizaintza laguntza osagarriak

GOI MAILAKO ZIKLOAK

Automozioa
Administrarritza eta finantzak
Ingurugiro osasuna

Aurrematrikula epea: ekainaren 1etik 8ra

Azpiegitura teknologiko aurreratuena, enpresa simulatuak, lan praktikak Europan, lan munduan sartzeko emaitza ezin hobekak.

ETOR ZAITEZ ETA EZAGUTU GAITZAZU ZURE ERABAKIA HARTU AURRETIK.



Makina
Erremintaren
Institutua

Instituto de
Máquina
Herramienta

INFORMAZIOA:

Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa, 1 - 20870 Elgoibar
Telf. 943 74 41 32 - 74 82 65
Faxa. 943 74 41 53
email: amaia@imh.es
www.imh.es



Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Ikastetxe
Publikoen sareko partaidea.

2005-2006 Ikasturtea

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A - D ereduak)

- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Industri Ekipoen Mantenimendua

ERDI MAILA (A - D ereduak)

- Mekanizazioa
- Makineria eta Linea Eroanbideen Instalazio eta Mantenimendu Elektro-Mekanikoa

ATE IREKIAK:

ekainaren 2an, arratsaldeko 18etan



Izena emateko epea: Ekainaren 1tik 8ra, biak barne

SORALUZKO EUSKAL JAIXAK 2005

Ekainaren 2tik 18ra

-  **Ekainaren 3an, barixakua**
VI. Kantu afaria
21:30etan frontoian
(Sarrerak salgai Gila, Arrano eta Pil-pileanen)
-  **Ekainaren 5ean, domeka**
XXXV. Haurren Euskal Jaixa
-  **Ekainaren 9an, eguena**
UEUren ikastaroen aurkezpena
18:30etan Gaztetxean
-  **Ekainaren 11n, zapatua**
UEU ezagutzera irteera
11:00etan Gilatik
(Izena emateko Pil-pileanera deitu)
-  **Euskararen mural pintaketa**
16:00etan Kañoi fabrika aurrean
-  **Ekainaren 14an, martitzena**
"Berbeta Berua" liburua eta Mingain Bero lehiaketaren aurkezpenak
19:30etan Gaztetxean
-  **Ekainaren 16an, eguena**
"Eske guk holan eitten dou berba, bale?: gaur egungo gazte hizkeraz"
Kike Amonarrizen eskutik
19:30etan Gaztetxean
-  **Ekainaren 18an, zapatua**
"Mingainbero" lehiaketa
12:00etan Gaztetxetik



SORALUZKO
EUSKAL JAIXAK



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



ASTE BERDEA '05



01 02 03 04 05 06 07 08

ekaina

junio

DEBA IBAIARI BURUZKO EKO-JOKOA • ECO-JUEGO SOBRE EL RÍO DEBA

Urari buruzko jokoa (tribial eta antzara-jokoaren antzekoa) garatuko da Soraluzen, Plaza Berrian, datorren ekainaren 8an, asteazkena.

URARI BURUZKO ANTZERKIA • TEATRO CON EL AGUA COMO TEMÁTICA

Soraluzen egingo den urari buruzko antzerkia. Datorren ekainaren 8an, asteazkena, Plaza Berrian, arratsaldeko 7etan.

BALKOIEI APAINKETA LEHIAKETA • CONCURSO DE EMBELLECIMIENTO DE BALCONES

Hoberen apaingutako eta politenak diren balkoiak sarituko dira: bertako 8 sari eta eskualdeko sari bat. Loreak doan banatuko dira, guztiak bukatu arte. SORALUZE, ekainaren 8an, Plaza Berrian, 12.00etan.

DEBA IBAIA EZAGUTU • CONOCE EL RÍO DEBA (uztailak 3 - 3 de julio)

Irteera gidatua Deba ibaira. Ezagutu ezazu ibaiaren flora eta fauna (urkiak, haltzak, zozoak, txantxangorriak...), eta ikas ezazu gure ibaiaren ingurumen-egoera aintzat hartzen. Nahitaezkoa da izena ematea (azken eguna ekainaren 23a izango da).

ESKOLA AGENDA 21 FOROA • FORO AGENDA 21 ESCOLAR (maiatzak 31 - 31 de mayo)

Eskualdeko 14 ikastetxeetako ikasleek hondakinei buruzko azterketaren emaitzak aurkeztuko dituzte.

INFORMAZIOA - INFORMACIÓN: Tel.: 943 820 110 • e-mail: agenda21@debegesa.com.

